

FUNTSEZKO SOZIJETATEAK

Funtsezko sozietateak enpresaren helburuak lortzeko eta enpresak arrakasta izateko langunduko dizuten aliatuak dira. Orduan, enpresaren ezaugarrien arabera bilatu behar dira bazkide eta hornitzaile egokienak.

Gure kasuan proiektua aplikazio bat da, orduan programadoreak ezin bestekoak izango dira. Merkatuan bilatu beharko ditugu edo enpresa bat kontratatu gure aplikazioa ematen duen zerbitzua beti hoberena izateko. Freelancer-ak aukera egokiena da gure ustez, kostu murriztuagoak. Negozio digitalek freelancer-ak kontratatzen dituzte zerbitzu profesional bat izateko, langile finkorik izan beharrik gabe. Freelancerrak epe ertain eta luzerako bazkide estrategiko gisa pentsatzeak onura handiak ekar diezazkioke negozioari.

Aliantza estrategikoak dira zure sektore bereko pertsona batekin, egin behar duen lana ondo ezagutuko duelako eta bere ekintzak modu egoki batean egingo duelako. Lankide, ikaskide edo senide bat izan liteke. Argi izan behar dituzu zure bazkideak ezagutzan dituen onurak eta erants ditzakeen ekarpen materialak. Hasieran, konpainiako kideek ekintzailtzaren arlo guztietan parte hartzea normalena da. Hala ere, denborarekin eta enpresa hazten doan heinean, pertsona bakoitza arlo jakin batez arduratu behar da, enpresaren funtzionamendua hobetzeko.

Garrantzitsua da enpresako kide guztiek eta bazkideek beren gaitasunak hobetzea eta ezagutzak handitzea egunero. Horretarako, oso onuragarria izango daiteke hezkuntza bultzatzea gure enpresaren langileen artean. Aztertu zure langileak, hobetu dezaketen ekintzak eta helburuak lortzen lagun dezaketen modu ezberdinak.

Gobernuko erakundeekin aliantzak sortzea aukera bikaina izan daiteke, eta zure enpresan hainbat modutan eragin dezake. Finantza-, sustapen- eta hezkuntza-

arloko ekarpenak ekar diezazkiokete enpresari, edo zure bezerorik garrantzitsuena bihur daitezke.

Gobernu batekin elkarte bat ezartzeak garrantzi handiagoa du zure negozioak ekarpen soziala badu edo nolabait gobernu-erakundearen helburuekin bat badator. Eta gure kasuan gobernuekin komunikatzea garrantzitsua da azkenean gure helburua eta haiena berdina izango da eta bion artean errazagoa izango da hauek lortzea.

Finantza-bazkideak beharko dira enpresa behar duen erakarpen ekonomikoak lortzeko. Aliatu horietako batzuk inbertitzailek, bankuak eta abar izan daitezke. Garrantzitsua da enpresaren helburuekin hoberen egokitzen den bazkide finantzarioa identifikatzea.

Funtsezko hornitzaileekiko aliantzak garrantzitsuak dira, baliabideak, ezagutzak eta lehengaiak lortzen laguntzen badute. Hornitzaile guztiek ez dute garrantzi bera izango zure enpresarentzat. Lehengaien hornitzaileak erraz ordezkatu ahal izango dira; ez da gauza bera gertatzen produktu espezializatuen hornitzaileekin. Hornitzaile garrantzitsuenak identifikatu behar ditugu, aliantzak sortzeko, harremana sendotzeko eta zure ahuleziak indartzeko.

Mugikorrak egiten dituzten enpreseekin hitz egingo dugu akordio batera ailegatzeko non beraien mugikorretan gure aplikazioaren erabilera hobetzeko sistema bat sar dezaten. Mugikor berri bat erosten duzunean gure aplikazioa erabiltzeko bereziki diseinatutako ezaugarriak izan ditzan.